

# Nafarkaria

• ostirala • 1999ko abenduaren 3a


**Egunkaria**

**Gehigarri honetan**



**Araitz** • Igandean hasi eta astebetetz, kulturaren eta euskararen ingurukoek beteko dituzte jaiegun hauek

**Joxelu Berasategi** • «Lamixine Berako antzerki taldeak jendea erakartzeko gaitasuna du»



## Merinaldeen Eguna 'versus' Nafarroaren Eguna

Gaur Nafarroako Gobernuak urrezko domina emanen dio Anfas elkarteari. Xabierren meza egingen dute. UPN Lizarran bilduko da alderdiaren eguna ospatzeko. Eta CDNkoak Iruñeko Lopez pilotalekuan elkartuko dira.

Gaurkoa, ofizialki, Nafarroaren Eguna da Nafarroa Garaian. Orreaga elkarteak, ordea, – Nafarroa osoa eta euskalduna eskatzen du– Nafarroako Merinaldeen Eguna ospatuko du. Nafarroak mugarik ez duela, edo ez duela behar, aldarrikatu nahi du Orreagak. Ekitaldi ofizialen handinahikeriari kutsu herrikoiagoko besta kontrajartzen diote, Nafarroa eta nafartasuna behetik eraiki nahi baitute.

Araitz ●

# Ekitaldiz betetako astea, helmugara iritsi arte

Igandean hasita, kultura eta euskararen ingurukoek osatuko dituzte jaiegunok

**Zazpi egun, zazpi herri, zazpi ekitaldi. Egunero bat, eta bakoitza, herri batean. Helburua, kultur astea ibarreko azken txokoraino helaraztea.**

**A**RAITZ-BETELUKO EUSKARA Batzordea duela hamabost bat urte sortu zen, eta, harrezkerotik, urtero antolatu ohi du kultur astea. Antolatutako ekitaldien artean, aste honetakoak izaten dira arrakastatsuenak, parte-hartzeari dagokionez behintzat. Dirua gastatzerakoan ere ez omen dute erreparatzen batzordekoek.

Etzi izango da ekitaldietako lehena, igandean, eta etxeko txikiei zuzendua izango da. Kollins Klown taldea ariko da Beteluko pilotalekuan, arratsaldeko bostetatik aurrera, *Kiriko oilarra* eta *Hiru txerrikumeak* antzezlanekin.

Astelehenean, azken 21 urteetako konstituzioak benetako demokrazia zaintzen ez duelakoan, preso politikoen egoera aztertuko dute mahai-



Izarren Bitakora antzezlanaren antzezlanaren irudi bat. ● MIKEL UHARTE

inguru batean. Bost preso ohi eta haien hainbat senide izango dira, 21:30etatik aurrera, Uztegiako Herriko Etxean.

Urteroko diapositiba emanaldia Ariben egingo dute, asteartean. Aurten aukeratutako ibilaldia Pakistan inguruan kokatua da: *Argiaren Mendiak* omen dira Gasherbrum eta ingurukoak, eta haietan zehar egindakoak azalduko ditu Julen Reketa mendizaleak Elorri elkartearen, 21:30etan.

Asteazkena, Ama Birjinarena ez ezik, Araitz-Beteluko

ere izango da. Goizean goiz, goiz-soinua izango da Intza herrian, eta musika munduan oso ezaguna den pertsona bat izango da gonbidatua: Juan Mari Beltran. Gero, eguerdia arte, eskulangileen erakusketa, zantzarren, txistulariak, trikitilariak, talo eta txistorra eta abar izango dira giroa sortzeko. Herri bazkaria Zigari elkartearen izango da.

Ostegunean, Gaintzan izango dute hitzordua araitzarrak eta beteluarrek. Bertako elkartearen, 21:30etan, Mikel

Belasko filologoak hitzaldi bat emango du, toki eta etxeen izenen jatorria azaltzeko.

Ostiralean, antzerkia izango da osagarri inportanteena, eta ez nolana hainkoa: Maskarada talde ezagunak bere lana antzeztuko du, Azkaraten, 21:30etan. Mikel Martinez antzezleak, bakarrizketa baten bidez, *Izarretako bitakora* zelebre bat idatziko du.

Larunbatean *Mallope lasterka*-ren bigarren aldia egingo da, AEK-k antolatu ohi duen Korrikaren bertsio xumea. Herri aldizkari horrentzako dirua biltzea da benetako helburua, baina Araitz-Betelu eta Larraun-Lekunberriren arteko harremanen sendotzeaz janzten dute. Lasterkariak Baraibartik abiatuko dira, eta, herriz herri, Atalluraino heldu. Atallura iritsitakoan, eta beharrezko atseden hartu ostean, jai giroa nagusituko da. 21:30etan herri afaria izango da tabernan. Afalosteko saltsa ibarreko bertsolariek jarriko dute. Eta musikariek ere ez da faltako: goizalde arte, Ainhoa, Maitane eta bere taldearen trikiti soinuak izango dira. Horrela amaituko da, kultur astea baino aste ludiko gastronomikoa omen dena.

→ Urko Aristi

Areso  
●  
Euskararen  
eguna  
igandean

ARESOKO ESKOLAKO GURASO Elkarteak igandera-ko prestatu dute aurten-ko Euskararen Eguna. Badira zenbait urte abenduko aurreneko igandean festa hau antolatzen dutela, eta aurten ere ez diote hutsik egin nahi izan zita honi. Negua iristear denean, taloa jateko tenore paregabea da, eta horregatik, 11:30etan, hamaiketako eskaintzeko prest izanen dituzte Martak, Ramonek, Katalinek eta beste lagun batzuek sua eta beharrezko guztiak. Euskara Zerbitzuaren laguntzarekin, *Arraultz delikatuak* izenburuko antzezlan ikusteko aukera izanen da. Ondoren, prest egonen dira pilota eskolako ordezkariak partidak jokatuko. Hau-ek bukatutakoan, dantzari txikiak hartuko dute lekua.

Bazkaria 14:30etan izanen da. Indarrak berri-ondoren, eskolako umeen abestiak entzun ahal izanen dituzte bertaratutakoek. Ondoren, trikitilari txapelketan parte hartuko duten bikoteek joko dute, herrikoek sarrera egindakoan. Txapelketako irabazleen izenak ezagutarazi eta gero, txokolate bero-beroa izanen da denentzat. Egun berezi honetan, Leitzako abesbatzaren bisita izanen dute aresoarrek. Egun handi honi bukaera emateko, dantza egiteko talde bat ere izanen da.

→ Eli Belauntzarán

irulegitik

JOJO BIDART



## Mundializazioa

**M**unduko Merkataritza Erakundearen gailurrari esker jazaraldi mundiala martxan ezarri da.

Orain arte, tarteka baizik agertzen ziren mundializazioari buruzko oldartzeak. Hala nola, Nafarroa Behereko Arrosan iragan den azken Euskal Herria Zuzenean festibalean eta, berrikiago, eta erantzun mediatico zabalgo batekin, Jose Bove laborariaren auziaren bitartez.

Egun hauetan gure planetako herri guzietan aipatzen da gaia, oihu ozen bat errepikatzen delarik: «merkatu bakarraren legeak inposatu nahi duen uniformitatea ez dugu onartzen».

Baionan iragan berri den manifestaldian ikusi ahal izan dugu munduan zehar altxatzen ari den liberalis-

moaren aurkako mugimenduaren gure heineko zati bat.

Han ziren Euskal Herriko Laborarien ordezkariak. Laborantza industrialari aurre egin behar dela aspaldidanik diote baina oihartzun berri bat daukate haien argumentuek: laborari tipien defentsa; ekoizpenen kalitatearen atxikimendua gastuaren uniformizazioaren aurka eta kontsumitzaileen osagarri alde; elikagaien aberastasun naturalaren zainketa multinazionalen kontrol genetikoaren aurka.

Laborantza bezala Munduko Merkataritza Erakundeak estali nahi dituen beste sektore guzietan ere defentsa arlo berdina aurkitzen dira: ekonomikoa, soziala, osagarri / ingurumena eta kulturala. ELBko laborarien ordezkariak ez dira bakarrik izanen Seattlen, Hego

Ameriketako laborari tipien ordezkariekin batera dira mintzatuko eta, makroekonomiari aurre egiteko korporatistotik atera behar dela oharturik, beste indar sozialekin jokatuko dira.

Amerikano eta ekonomiako mega egiturei buru egiteko sokatira partida abiatua da eta gure eskualdeko langile-laborariek ere sokari lotu nahi dute. Badakite bi mutur baino gehiago dituela soka horrek, aberastasun oso gaizki partekatua direlako herri aberatsetan eta herrien artean ere: azken 20 urte hauetan munduko herri aberats eta pobreen arteko lezea bikoiztu da oraino.

Ez ditugu amerikanoak nagusitzerat utzi behar, gurea atxikiz, eta denbora berean, Hegoaldeko Herriak gartzten lagundu behar ditugu guretik utzi. Lotu sokari!

Lizarra ●

# Ibilbideak naturan zehar

Udalak 11 ibilbide naturalistiko biltzen dituen gida bat kaleratu berri du

**Ibilbide naturalistikoak Lizarran zehar izenburupean, hirian eta inguruetan egiteko zenbait ibilbide biltzen dituen gida bat karrikaratu dute. Bertan, txango bakoitzaren ezaugarriak aipatzen dituzte.**



Los Llanos pasealekua da kaleratu berri den gidan aurki daitezkeen 11 ibilbideetako bat.

● KRISTINA BERASAIN

MENDIXKA MALDATSUAK, BAILARA zabalak, bidexka ezku-tuak, antzinako bidarriak, laiotzean dauden bidezidorrak, ibaiaren zurrumurruren ondotik dauden bideak... Denetarik aurki daiteke Lizarrako Udalak plazaratu berri duen gidan: *Ibilbide naturalistikoak Lizarran zehar*. Orotara, 11 ibilaldi biltzen ditu argitalpenak. Haietako gehienak oso ezagunak dira Lizarrako biztanleen artean; esaterako, Los Llanos berdegunea eta antzinako trenaren ibilbidea. Haatik, bertzelako ibilbide ezezagunagoen berri ere ematen da: esaterako, Candelitera eta Ordoiz, Valmayor, San Lo-

renzo, San Millan eta Santa Soria. Azkenik, zailtasun handiagoa duten bertze ibilbide malkartsu batzuk aipatzen dira: Jurramendikoa, Belastegikoa eta Gazteluen Gurutzekoa, alegia.

Ibilbide bakoitzean mapa bat ageri da, zeinean kolore gorriaz ibilbidearen nondik norakoa zehazten baita. Halaber, txangoaren ezaugarriak azaltzen dira eta, oro har, zenbat denbora den beharrezkoa betetzeko. Zailtasunik ote duen ere zehaztua dago, eta, azkenik, txango osoan aurki daitezkeen jakingarri historikoak, botanikoak eta faunis-

tikoa aipatzen dira. Giroaz enpresa arduratu da gida egiteaz, eta, Enrique Garcia egilearen hitzetan, bi helburu izan ditu: «Batetik, informazio zabal eta zehatza eman nahi izan dugu jendeak eskura dituen ibilbideak gertutik ezagut ditzan; eta, bertzetik, jendeak ingurugiroarekiko errespetua izan dezan ere ardatz izan dugu».

Argitarapenak mapa kartografikoak, argazkiak, marrazkiak eta landare eta animalien fitxa teknikoak biltzen ditu. Halaber, bitxitasunak eta anekdotak aipatzen dira, hala nola hiztegia eta bibliografia.

Gidaren argitarapena proiektu zabalago baten baitan kokatua da. Gauzak horrela, etorkizunean 11 ibilbideak markatu egingen dituzte. Lehentxeago ere, Udalak ingurugiroarekiko sentsibilizazio kanpainak egin izan ditu hiriko garbiketaren, industri kutsaduraren, Ega ibaiaren, ekologiaren eta eraikuntza biologikoaren inguruan.

Gidak 900 pezetaren truke eros daitezke Udaleko bulegoetan. Orotara 2.000 ale karrikaratu dira, 1.500 gaztelaniaz eta 500 euskaraz.

→ Kristina Berasain



**herri aldizkariak**  
Eduarne Elizondo

## Bertsolaritzaren lorea

Begiraleak elkarteak Iparraldean bertso saioak antolatzen ari den lana nabarmendu du Herria astekariak azken zenbakian: «Ondarearen egunak muntatzen direlarik Irisarrin, edo gogoetaldi berezi batzuek akulatzen direlarik Uztaritzen, berrikitan gertatu den bezala, Euskal Kultur Erakundea sustatzailerik, beti norbait agertzen da, eta behar ere, azpimarratzeko bertsularitza dugula gure ontasunetan lore ederrenetarik batto eta gisa hartako tokia hartze ere duela. Bertsularien Lagunak deitu elkarteak ere ez du bixtan da besterik errepikatzen. Ho-

rra zergaitik aintz estimatu behar ditugun eskuin eta ezker muntatzen diren bertsulari saio horiek. Xapelgoen kondukoak segur bainan berdin bestalde izaiten direnak ere. Hala nola Urepelen hilabete hunen hastetsuan iragan den hori, Xalbador zena omenduz, aita Arnalde gai emaille. Bainan ere xumeagoak emaiten duten sail batzuek, guziz baliosak beren heinean, konparazione Begiraleak elkarteak zenbait urte huntan Donibane Lohizunen eskaintzen duen hori, portuko erretagian».

«Aurten ere aski poliki joan da, Xabi

Soubelet eta hunen lagunak akulatzaile. Orotarat ez bildurik ere hiruetan-hogoitazentzait lagun baizik, holako elgarretaratze batzuek beharrezkoak dira, guziz interesgarriak gainerat goiti ari zaizkigun gazte batzuek sartzen direlarik zohituago batzuen aldean. Aldi huntan, Sus-trai Kolina eta Amets Arzallus ziren bezala Igor Elorza, Maialen Lujanbio eta Xanpun-en sahetsean. Holakoak behar litazke haatik usuago eta jende gehiagok ere parte hartuz. Ez baita zimeltzerat utzi behar bertsularitzaren lore arraro hori».



**urdairen mintzoa**

Xabier Larraburu

## Depreak jota

Bai, adiskideok, depreak jota nabil. Ni alaiki bizi nintzen, nire txokoko pasadizotxoak kontatzen, Takonerako ahatei buruz eta horrela, bainan Harkaitz Canok *Niu Yorretik* bueltatu eta zera esan digu: «New Yorken», esan du, «metro linea bat hartu, bukaeraraino joan eta bueltatzen zarenerako bi istorio idazteko materiala jaso duzu». Hara. Hor dago gakoa. Ni ez naiz *Niu Yorken* sekula santan egon. Zer ostia kontatuko dut bada bada bada? Gauza gutxi. Orain Txantreako Villabesa gorrotagarria iruditzen zait. Hala eta guztiz ere, azken geltokiraino joatea erabaki eta auzo ezezagun batean jaitsi naiz. «Non nago?», galdetu diot natibo bati. «Hirugarren Orvinan», esan dit. Hirugarrena? «Ba al dago 1. eta 2. Orvinarik?» izan da nire hurrengo galdera. «Bai, noski!», esan dit natiboak, eta gero alde egin du. Orduan, ni bezala azken geltoki horretan jaitsitako beste hiru pertsonetan erreparatu dut. Ni bezala, geldi-geldirik zeuden etxe erraldoiei begira. Ni bezala nahiko depreak zeudela iruditu zait.

Haietako batek natibo bat gelditu eta ea non zegoen galdetu dio, eta orduantxe egoeraren bitxiaz konturatu naiz. Beraingana joan eta «zer?, zuek ere Harkaitz Canorena irakurri duzue?» galdetu diet. Bai. Horrela zen. Idazleak ziren. Eurria hasi du eta alboko taberna batean babesa bilatu dugu. Babesa eta lau karajillo. Mahai gainean aurkitutako materialen notak jasotzeko gure lau koadernoak zeuden, beraien orri txuri-txurietan. Durangoko azoka izan dugu hizpide, gehienbat. Batek ea Sarrionandia New Yorken egon al den galdetu du. Posible dela erantzun dugu. Batek daki. Handik ordubetera batzuek mixtela eta besteek patxarana eskatu, eta treguari buruz ibili gara gora eta behera. Seguru nago gutako inork ez duela funtsean zer pentsatzen duen esan. Bainan tira. Geltokira bueltatu gara berriro ere. «Buel-tan, akaso, istorio bat idazteko materiala topatuko dugu», esan du batek. Gutako inork ez dio erantzun. Berriz ere eurria hasi du hirugarren Orvinan. Estalpean babestu gara. Langile bat villabesaren txartela atera du, eta, badaezpada ere, denok hasi gara notak hartzen. ●

# Nafarroako Merinaldeen

## Eguna

Nafarroaren egun ofizialari kontrajarriz, Orreaga nafar elkarten bilguneak besta herrikoiagoa eginen du gaur

**Gaurkoa San Frantzisko Xabierkoaren eguna izateaz landara, ofizialki Nafarroaren Eguna ere bada Nafarroa Garaian. Orreaga elkarteak, ordea, zeinak Nafarroa osoa eta euskalduna eskatzen duen, Nafarroako Merinaldeen Eguna ospatuko du. Nafarroak mugarik ez duela aldarrikatu nahi du Orreagak. Ekitaldi ofizialen handinahikeriari kutsu herrikoiagoko besta kontrajartzen diote.**

**M**IAZ EGIN ZUEN ESTREINAKOZ ORREAGA nafar elkarten bilguneak Merinaldeen Eguna, Iruñean. Patxi Erdozain eta Bixente Serrano Izko Orreagako kide dira. «Duela bi urte hasi ginen batzuk pentsatzen Nafarroa eta nafartasuna eraiki behar genuela behetik, eta ez gottik», erran du Erdozainek. «Eta gonbita egin genion pertsona eta elkarte askori. Hamar bat pertsona hasi ginen Orreagarekin, gehienak abertzaleak. Baina gure helburua da nafartasuna bultzatzen duten pertsona guztiak biltzea, ez bakarrik abertzaleak», gaineratu du.

### Nafarroa osoko taldeak

Orreagaren baitan Nafarroa osoko talde kulturalak daude. Berrogeita bost bat daude orain. Iazko ekitaldian manifestu

bat plazaratu zuten. Manifestua sinatu zuten, beste askoren artean, Jose Luis Castejon PSNkoak, Victor Maeztu CDNkoak, Perez Nievas EKakoak, Agirrebengoa EAJkoak, Koldo Lakasta HBkoak, Pablo Lorente EPKkoak eta beste talde antzek eta esparru ezberdinetako jendeak. «Orreaga gauza zabala izatea nahi dugu», erran du Erdozainek.

Merinaldeen Egunaren helburua da «abenduaren 3an ospatzen den jai instituzional horri beste zentzu bat ematea». Kutsu herrikoiagoa eman nahi zioten, «Nafarroaren iragana beste modu batean interpretatuz eta euskarari berebiziko garrantzia emanez». Aurtengo bestaren leloa *Nafarroan mugarik ez da*. «Nafarroa hitz horrentzat berreskuratu nahi dugu

### Nafarroa osoa eta euskalduna

Nafarroako errealitate historikoa gogoan ukanez, Nafarroa zaitzen duen mugaren bi aldeetako nafartarrok betidanik kurutzatu garaia kontuan harturik, mugak gainditu nahi direla sinetsi nahiz, guk, Nafarroako elkarte eta herri-tarrok:

- Gaurko mugaren gainetik gure arteko harreman eta loturak gizar-

teko sektore guzietan (kirola, kultura, ekonomia) sendotu eta azkartu nahi ditugula jakinarazten dugu.

- Agintari politikoei estatuen muga gainditzen duen euskara, gure jatorritzko hizkuntza amankomuna, ofizialki onartua eta merezi duen laguntza ukan dezan galde egiten dugu.

laz egin zuen gisara, Nafarroako Merinaldeen Eguna foruen monumentuaren azpian ospatzeko deia egin du Orreaga bilguneak.

JOXE LACALLE

bere jatorritzko zentzu historikoa, hau da, *Nafarroa* izena erabiltzen hasi zenean Nafarroako Erresuma zen, eta horrek hartzen zituen Euskal Herriko ia lurralde guztiak», erran du Serrano Izkok.

### Mugarik gabeko Nafarroa

Nafarroari eta euskarari mugarik ez jartzeko, euskara Nafarroa osoan hizkuntza ofiziala izatea nahi dute. Serrano Izkoren aburuz, euskara mugen ezabapen horretarako oinarritzko ardatza izan daiteke: «Euskarak herri bezala definitzen gaituen heinean, batu ere egiten gaitu».

Abenduaren 3a Nafarroako patroil San Frantzisko Xabierkoaren eguna da, baina Orreagakoek ez dute Merinaldeen Egunean sailduaren aipamen berezirik egiten, Serrano Izkok dioenez. «Gure jaia ospatzeko edozein egun har genezakeen, baina abenduaren 3a aukeratu genuen instituzionalki Nafarroaren (Garaia)ren eguna delako. Gainera, guk ematen dlogun izena bestelakoa da. Nafarroako Merinaldeen Eguna».

Erdozainek esplikatu duenez, ez zioten euren bestari Nafarroaren Eguna deitu, «hori Balgorrin urtero egiten dutena delako». Hortaz, gaurkoan, Nafarroa osoko nafarrak foruen monumentuaren azpian bilduko dira, nafar herriak berak ordaindu zuten monumentuaren azpian, Nafarroan mugarik ez dagoela aldarrikatzeko.

→ Asier Azpilikueta



### Nafarroako Merinaldeen Eguneko egitaraua

- **10etan:** Karrika dantza Alde Zaharrean
- **10etatik aurrera:** Ekitaldi nagusia foruen monumentuan
- Aurkezpena, kirrikoketak lagundua.
- Nafarroako antzinako ereserki nazionala.
- Nafarroaren ikuspegi historikoa.
- Merinaldeen aurkezpen eta ekitaldia:
  - 1. Bertsolariak
  - 2. Tuteratik: Makil dantza
  - 3. Tafallatik: Jotak
  - 4. Zangozatik: Dantzak
  - 5. Nafarroa Beheretik: Kantariak
  - 6. Lizarratik: Dultzaineroak
  - 7. Nafarroako Gorteei egindako ereserkia.
  - 8. Manifestuaren aldarrikapena.
  - 9. Lantzeko zortzikoa eta jota.



Bixente Serrano Izko eta Patxi Erdozain Nafarroa osoa eta euskalduna aldarrikatzen duen Orreagako kide dira. JOXE LACALLE

## Izenarekin bueltaka

Egunotan San Frantzisko Xabierkoaren bizitzaren inguruko erakusketak ikus daitezke Iruñeko Eroritakoan monumentuan. Frantzisko Japoniara iritsi zeneko —«Mendealdea eta Ekialdea elkar ezagutu zuteneko»— 450 urteurrena ospatu nahi du erakusketak horrekin San Frantzisko Xabier Fundazio sortu berriak. Nafarren artean sainduaren bizitza ezagutaraztea du helburu. «Nafarroaren nortasunaren ezaugarria den sainduaren neurri unibertuala zabaltea», fundazioko lehendakariaren hitzetan. Bisitariak, ordea, nekez aurkituko du erakusketaren gaztelaniako paneletan Frantziskoren hizkuntzaren edo nazionalitatearen inguruko azalpenik.

### Frantziskoren euskalduntasuna

Frantzisko Xabierreko gazteluan jaio zen, 1507ko apirilaren 7an. Jatsuko Juan doktoarearen eta Azpilkuetako Mariaren bosgarren semea zen. Xabier Azpilkuetarren jabea zen. Xabierren euskara galduta zegoen ordurako, baina inudearengandik eta amarengandik euskara jaso zuen. Hortaz, Frantziskoren ama hizkuntza euskara izan zen. Berak idatzi zuenez, paravatek eta berak ez zioten elkarri ulertzen: «Euren hizkuntza naturala malabarra zelako eta neurea, bizkaitarra [euskara]».

1525ko abenduaren 3an hil zen, eta ordu arte gorde zuten Frantziskok euskara. Honelaxe idatzi zuen Valignanok Frantziskoren heriotzaren inguruan: «Antonio de Santa Fe Txinan aurkitu nuenean, erran zidan Aitak [Frantziskok], hiltzeko bezperan, zerurantz edo goiko puntu bate-rantz begiratzen zuela beti, eta Antoniok ulertzen ez zuten hizkuntza batean hitz egiten zuela; eta halaxe hitz egin zuen bi egunetan, hil arte. Gure irudikoz, Jainkoarekin hitz egin zuen bere jatorritzko hizkuntzan». Izan ere, Antoniok lasai aski uler zezakeen latina, portugesa eta gaztelania.

### Frantziskoren nazionalitatea

Frantziak eta Espainiak halako borroka dialektikoa izan dute euren artean Frantzisko *eurenganatzeko*. Jatsutarren jatorria «Frantziako» Nafarroa Beherean zegoela zioten frantziarrek, eta espainiarrek argudiatzen zuten Frantzisko «Espainiako» Nafarroa Garaiko Xabierren jaioa zela. Baina Frantzisko kanonizatu zutenean, erritoen kongregazioak «navarrus» aipatu zuten Frantzisko definitzeko. Espainiar eta frantziar nazionalismoek ika-mikarekin segitu zuten, hala ere. Vatikanok bukatu eman zion horri, erranez San Frantzisko Xabierreko Iruñeko elizbarrutian kokatu behar dela. Arturo Camponek erran zuen bezala, Frantzisko jaio zenean Jatsu eta Xabier estatu bat bakararen barnean zuden: Nafarroako erreinuaren barnean. «Xabierreko San Frantzisko bere lei-

nuagatik zen euskalduna eta bere nazionalitateagatik, nafarra», idatzi zuen Campione. Antza, Frantziskok bere burua halaxe aurkezteko ohitura zuen: «Euskalduna arrazaz, nafarra nazioaz». 1531n, Parisen, «antaber» (kantabriarra) zela erran omen zuen, hau da, euskalduna. Gutitan aipatzen da zergatik joan ote zen Frantzisko Parisera estudiantzera, eta ez Salamancara. Izan ere, Frantzisko erosoago aurkitzen zen Frantziar Espainian baino. Azken batean, Gaztelak 1512an Nafarroa konkistatu zuenean jatsutarrak eta azpilkuetarrek gartsuki borrokatu ziren inbasoreen aurka eta Nafarroaren independentziaren alde. Frantzisko ez zen borrokatu, gaztee-gia baitzen, baina bere familiaren kontrako errepresioa pairatu zuen.

## Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

## Tiebasko kazetari ezkertiar baten inguruan

Tiebasen, 1884.ean, jaio zen Biktore Gabirondo Sarabia 36.eko gerrate aurretiko urteetan Madril aldean ibiltzen ziren kazetari nafarren artean garrantzitsuenetarikoa genuen, Enderizekin batera, betiere ezkerreko egunerokoetan Errepublikaren aldeko idazle ziharduelarik.



A ita karabineroen sarjentua izanik, kasernaz kaserna ibili zigun Gabirondok bere gaztaro osoa Euskal Herriaren barrera, azkenez Bilbon kokatu zen arte. Literatur sen nabarmeneko, 22 urterekin agertarazi zuen Gasteizen bere lehenbiziko olerki liburua, *Vulgardades*. Oraino ikasle zela hasi zen egunkarietan idazten, *El Nervión* erregezelean lehenbizi eta Etxeberriatarren *El Noticiero Bilbaíno*-n gero, non berebiziko ospea bereganatu zuen *De Bilbao al Abra* izeneko sailarekin. Bilbotik atera aurretiko urte hauetan Gabirondo jeltzaleengandik nahikoa hurbilean bazebilen, 1908. ean Arrillagaren etxean argitara eman zuen *De mi montaña* idazkian aisa azta daitekeenez. Lana sinatzeko *Napar Txiki* goitizen esanguratsua erabiltzeaz ezezik, *patriota decidido, amante de sus ideales y protector de la literatura de su suelo* zitzaion Ramon de la Sotari eskeini zion liburua. Iruñeko liburutegian dagoen alekia Campioni berari espreski oparitutakoa dugu, eta honen azalean bere eskuz luzatu zion eskeintzan Iruñekoaren jarratzaile zintzotzat aurkeztu zuen bere burua Gabirondok. Olerki eitea duten hitz-lauko sei narrazio jasotzen dira lan-txo honetan: Jose Larrauriri opaturiko *Euskal-Erria* —*De mi cuna sagrado suelo, eres seco, árido, montañoso, mi país querido; rudos son tus hijos...*—, Pedro Anituari eskeini *Confesiones de un vasco*, emakume abertzale batzako kideei —*A vosotras, jellkides valerosas, valientes patriotas, un joven vasco os dice sus anhelos en estas líneas*— eskeini *Hermana*, Kondaño euskal idazleri opa *Ensueño*, eta, azkenik, Manuel Zugasti abertzaleari opa *Del camino*. Bide beretik joaki, *Bizka-*

ti antzezlan abertzalea idatzi zuen Gabirondok, Bilbon bertan taularatu zena.

Nolanahi ere den, osasuna arazo bihurturik, Bilbotik atera zen 1910. urte inguruan, gazte zeneko asmo jeltzaleak oro bertan utzirik. Valladolideko *El Diario Regional*-en labor ihardun ostean, Madrilerira iritsi zen *La Correspondencia*-ko kazetari lehenbizi, eta *El Liberal*-ekoa geroago. Ezkerreko jarreretara hurbilduz, Kazetarien Sindikatua-  
ren sorreran eta 1919.eko kazetarien greban zer esan handia izan zuen gure Gabirondok, eta geroxeago ere, *El Liberal*-etik ateratako hainbat kazetarik sortu berri zuten *La Libertad* egunkarian zezen-kritika idazteaz arduratu zen.

Literatura utzi barik, Madrilerira iritsi zenetik *Latidos y notas* eta *Mis amores* olerki lanak eman zituen argitarara 1913. ean, Enderizekin batera, *Madame Butterfly* antzez-lana estreinatu zuen Valentzian 1922. ean, eta elaberri, antzerki eta bestelako lan ugari ere ondu zuen, besteak beste, *Intransigencia*, *Noche de lobos*, *El hombre de la barba negra*, *La maldición de una madre*, *Al rayo de luna*, *Los dos polos*, *Aquí está mi mujer...*; alabaina zail da bere idazlan guztien zerrendatze zehatza egitea, alde bate-tik, edizio urrietan agertu zire-lako, eta bestaldetik ere, beste egilerekin batera atera zituelako hainbat eta hainbat liburu, hauek sinatzeko ere ezizen ugari erabili zituelarik; esaterako, Alfonso de Tiebas, Agustín Davo —bere emaztea zen Juliana Davoren abizenaz baliatuz—, Conde de Tiro, eta abar. Zera-

man norabide politikoarekin ados ez zegoelako edo, *La Libertad* egunkaria utzi eta asmo literarioagoko hainbat proiektutan sartu zen, besteren artean, *Los poetas* olerki aldizkaria, *La semana taurina* zezen aste-karia, eta kafegileen eta azukregile-  
leen gremioak sustengaturiko *Excelsior* zinema aldizkaria.

Primo de Riveraren diktaduraren ostean kazetaritzara har-zara itzuliz, *La Tierra*, *Nosotros* eta *El Diario del Pueblo* egunkari ezkertiarretan egin zuen lan, eta Errepublikarekin batera, *La hoja del lunes* egunkari ofizialeko kazetari sartu zen, 1932. ez geroz, Gobernamentuko Ministerioaren prentsa arduraduna izan zelarik. 36.eko gerratean eta gobernamentuari jarraikiz, Valentziara aldatu zen, non *Fragua Social* kazetan idatzi zuen, eta hiriko



Apolo antzokian *España y Méjico* elkarrizketa poematikoa estreinatu zuen 1937.eko uztailaren 25ean. Valentziatik Bartzelonara gobernuko prentsa eta propagandako bulegoko funtzionario joan zitzaigun, eta Errepublikaren alde ofizialki atera zituen *Con el sol en la cara: del cuartel de la montaña a Toledo* eta *Un episodio de terror en el campo fascista* folletoez gainera, *Solidaridad Obrera*, *Umbral* eta *Timón* egunkari anarkistetan idatzi zuen. Biktore Gabirondo 1939.eko otsailaren 3an hil zen, hegazkin faszistek Figueresen eginiko bombardaketa batean, ondoko urte bertzek kazetari zein idazle haundi honen izena ahanzturaz estali nahi izan zigutelarik.

etorri ahalean

Patziku Perurena

## Bertuteaz (San Frantziskoz)

Ezin dut xeheroago adierazi. Erlijioso hutsa iduri izan zait beti BERTUTE hitza, baita pentsalaririk bihurtuaren ahotan ere. Zer diragure bertuteak eta bizioak? Iruñea ondoko Makirriain herriko eskolan, hona nola utzi zituen izkiriaturik Juan Pablo Díez de Ulzurrunek 1828an: «... *Sobervie, Avarizie, Lujurte, Ire, Gule, Embidie, Pereza, Zazpi bizio eben contra dire berze zazpi virtute: Humildadea, Largueza, Castidadea, Paciencia, Templanza, Caridadea, Diligencie*».

Hereje partikular batengana goazen orain: «*Moralista gehienek esan ohi dute, bizio deitzen den oro, erabilgaiaren aukeraren maukerak ekarri ohi duela. Baina hobe, ondortik erantsi izan balute, bertute deitzen den oro ere, erabilgai berberen eskasiagatik edo akatsengatik deitzen dela bertute; hain juxtu, beldurra, ergelkeria edo akidura besterik ez denari zuhurtzia, zorrozatasuna edo neurtasuna deituz*».

Mixel Mendikoak, berriz, senekarena egiten du bere: «*Bizio ageriko guziak arinak dira; kaltegarriak berriz hagitz, ontasun itxura baten pean gordetzen direnak*». Zer dira, izan ere, bertuteak azken batean, ontasun itxuran apaindutako bizioak ez badira? Tripazaia, emakioa, drogadiktoa begi bistako biziatuak dira. Eta xuxena, xuhurra, onbera, ez al da funtsean, inoren zinezko izakerekin deus ikusirik ez duen apaindura xuriz biziatua?

Uste izaten da, zuhurrak, bizioetan bakarrik ipintzen dituela mugak, baina bistan da, gauza onetan ere igoal berean ipiniko dituela. Hala dio Mitxelek: «*Somatzen duzue-nean ni lehenik hunkitu naizela, utz nazazue joatera artez ala makurrez; gauza bera egiten dut neure txandan*». Horratx kontseju eder antibirtuosoa bat.

Ojala egunero astintzen eta

hunkitzen nauen jendez inguratu bizi banintz, zenbatez bizia goa eta nobleagoa izanen litzake nere izpiritua! Aipatzen hasteak ere lotsa ematen didan mila zozokeriz inguratua nautkan gizarte batek, ordea, nola aberastu lezake neure gogoa, nola gorritu neure gihar zuri-tuak?

Zahartzera zakurtu egiten gara, zuriz jantzi, bertutez no-bletzen ari garelako uste osan. Eta honetan, uste dut, beren buruak onberatzat, erruki-tsutzat, zintzotzat, edo dena delakotzat dauzkaten horiek izaten direla gainera okerre-nak. Ez dira ohartzen, zinezko arimak gudua duela eragile, ez salbazioa.

Neurtasunaz ari delarik, honela bukatzen du neure Mendikoak: «*Iduri hau egokitzen zaito, nolabait ere, munduko erlijio guzietan onartzen ohi zen aitzineko ideta hari: gure sakrifizioez zerua agaradaten zela-koa*». Irudi horixe berbera erro-tu da gure bertute zuri guzien azpian.

Baina erne. Senekarentzat, bertutea plazer hutsaren nes-kame ipintzea ere, deus handi-rik egin ezin duen izpiritua-  
ren egintza da. Nolatan bertuteak gida lezake plazerra, beroni jarraitzen badio, jarraitzea men-pekoarena da, gidatzea, aldiz, agintearena. Eta egungo gure bertute bakarrak, hala dio: «*Aberastasuna jakintzaren zerbiztura dago, baina tentelaren nagusi da*».

Lehenengo batean esaten zidan lagun doktore batek bazterretik: su bero gozagarrria eta su erre kizkalgarrria sumatzen dituela neregan. Zein ote da bietan kaltegarriena? Nik kon-datuko dut neure esperientzia unibertsal. Ni suak mila bider berotu (zozotu) nau, eta behin erre; eta behingo honek, beti-rako ernatu nau neure inguru-ra. Gaurgero ordea, neure su-tondo zozoan, bertute itxuran apaindutako biziatua besterik ez naiz: San Frantzisko he-baindu bat.

Ziria

• Motxorrosolo •

## Mugiezin

Ezagun duguna iristear, *tartea* aldaketa, hobekuntza nabarmenik sumatzeke igaro dela argudia daiteke. Egon-kortasunik gabeko garaietan, inbobilistek desira zuten guztia eskura dezakete, eta horren ondorioz, okerrera jo.

# Joxelu Berasategi Aktorea

## «Lamixinek jendea erakartzeko gaitasuna du»

**1993an sortu zen, Beran, Lamixine antzerki taldea; geroztik, hamaika lan egin eta aurkeztu dituzte herritarren aurrean, eta, orain, 'Donejakuerantzako bidean' obrarekin, profesionalizaziorantz urrats berria egin nahi izan dute. Taldekideetako bat da Joxelu Berasategi.**

**B**ERAKO BERE ETXEAN HARTU gintuen Joxelu Berasategi aktoreak, asteburuan, Bordeletik bueltan, han ari baita orain lanean, Lamixine bazter utzi gabe. Berako antzerki taldeaz eta antzerkigintzari buruzko bere gogoetaz mintzatu zen gurekin.

### ■ Nola sortu zen Lamixine taldea?

Gurè Txokoa elkarteak antzerki ikastaroa antolatatu zuen, eta han bildu ginen herriko hamar bat lagun. Esperientzia anitz gustatu zitzaigun eta erabaki genuen segitu nahi genuela. Horrela, Lamixine sortu genuen 1993an. Gure lehen sorkuntza izan zen *Altzateko Jaun*. Orduan denak ginen Berakoak. Gero, batzuk joan eta beste batzuk etorri dira, eta orain Beratik kanpoko jendea ere bada taldean.

### ■ Zein izan da taldearen ibilbidea orain arte?

Hasieran hezkuntza zen ardatza, taldekideon hezkuntza, Larunbateko tailerra deitzen genuena. Horren ondoan adar berriak sortzen joan dira. Horietako bat izan da herriarentzat gauzak egitea. Guretzat hagitz inportantea izan zen, adibidez, Lore Jokoetan parte hartzea 1995ean. Gero gauza gehiago egin ditugu, eta, horiekin batera, tailerrak eman dituen sorkuntzak egon dira: *Altzateko Jaun* izan zen lehena, gero *Lilien lilurak* egin genuen, eta hirugarrena *Cartias* izan zen. Euskaraz eta gaztelaniaz lan egiten dugu.

### ■ Donejakue bideari buruzko obrarekin beste urrats

### bat egin duzue; profesionalizaziorantz jo nahi duzue.

Bai; obra horrekin atal edo adar berri bat zabaldu dugu. Obra hori sortu dugu kanpogan saltzeko, eta, aldi berean, taldeko aktoreei lan hori ogibidetzat har dezaten bide bat irekitzeko. Udaberriari hasiko gara obra gure herritik kanpo ere saltzen. Uste dugu produktu polita dela, herri bakoitzeko egoerara egokitzen delako. Kontuan hartu behar dugu leku askotan ez dela antzokirik.

### ■ Zergatik egin duzue urrats hori orain?

Batetik, bazen zerbait gehiago egin nahi zuen jendea taldean; bazen gogo bat beste pauso bat emateko, baina ez genekien nola. Bertze aldetik, taldeko bi kide hemendik kanpo ere lanean ari gara. Ni Bordelen ari naiz, eta han proposamen bat heldu zitzaidan lan bat egiteko. Beraz, bi egoera horiek bat egin dute, eta horrela sortu da gure obra berria. Esperimentu bat bezalakoa izan da, eta orain emai-

..... ● .....  
*«Telebistan botatzen dutena jasotzera ohituta gaude, baina antzerkia ezberdina da, zuzeneko harremana dago, eta horretan datza, hain zuzen ere, antzerkiaren indarra»*  
 ..... ● .....

### soslaia

Berako Gure Txokoa elkarteak antolatatu ikastaroaren bidez murgildu zen Joxelu Berasategi antzerkigintzaren munduan. Lamixine taldean egin zituen lehen urratsak, duela sei bat urte. Ingeniaritza alde batera uztea erabaki zuen orduan, eta aktore lanean buru-belarri sartzea.

Lamixine taldean hasitako bideari, Bordeleko hainbat taldetan eman dio jarraipena aktore beratar honek. Orain, Jean Luc Terradek zuzentzen duen *Les marches de l'été* taldean ari da lanean. Berako konpainia, hala ere, ez du bazter utzi. Taldea haurrentzako lan bat prestatzen ari da orain.

Joxelu Berasategirekin hitz egitean agerian gelditzen da antzerkigintza maite duela; antzerkigintzak eskaintzen dituen aukerak aztertzea eta horietan sakontzea gustuko du, zalantzarik gabe. Hala ere, aktore gisa, zinemagintzan edo beste eremu batzuetan sartzeko eta lan egiteko prest da.

tza zein den ikusi beharko dugu.

### ■ Kale antzerkia da.

Bai; nik, hala ere, ez dut hagitz gustuko kale antzerkia erratea. Kanean egiten den obra da gurea, baina batez ere gure asmoa da publikoarekin sortzen den harremanean sakontzea. Telebistaren aurrean esertzera ohituta gaude, ematen digutena jasotzera. Baina antzerkia ezberdina da, zuzeneko harremana dago, eta hor dago, hain zuzen ere, antzerkiaren indarra. Gure obraren ardatza erromesaldia da, baina erromesaldi horretan publikoa aktoreekin nahastu egiten da. Erromes arropak jantzen dituzte, eta bidea egiten dute gurekin. Aldi bakoitzean, gainera, ezberdina da obra.

### ■ Elizondon eta Beran era-



● JOXE LACALLE

### kutsi duzue. Oso zaila al da herri txiki batean publikoa erakartzea?

Alderantziz dela iruditzen zait. Beran, gainera, lan handia egin da, ez Lamixinek bakarrik. Herriko taldeek lan handia egin dute eta publikoa sortzen ari da. Guk badakigu jendea erakartzeko gaitasuna dugula, egiten duguna ikustera etorriko dela jendea; eta hori hagitz inportantea da guretzat eta herriarentzat, dinamika bat sortzen delako. Dena den, oro har, hemen Nafarroan argi dago publikoaren bila joan behar dutela antzerki taldeek.

### ■ Taldeak urrats berria egin arren, orain arteko lanarekin aurrera segitzeko asmoa duzue?; hau da, tailerrak martxan jarraituko du antzerkigintzan murgildu nahi duen jendearentzat?

Bai; hezkuntza oso inpor-

tantea da guretzat. Tailerrari dagokionez, aldaketa bat egin dugu, eta, aurrerantzean, parte hartu nahi duen jende guztia hutsetik hasiko da. Halaber, ikastetxeetan antzerkia lantzeko talde bat ere osatu dugu.

### ■ Aktore bezala, zein da antzerkigintzan gustuko duzun alderdia?

Niri aztertzea interesatzen zait; aztertzea, batetik, aktore eta publikoaren arteko harremana, eta, bertetik, lan prozesua; nire lan prozesua aztertzea aktore eta pertsona bezala lan bat jendaurrean aurkeztu arte, eta nire ondoren direnen lan prozesua ere bai. Ikuslearekin sortzen den harremanari buruz, oso indartsua da antzerkian, zuzeneko ikuskizuna delako. Ikuslea bera aktore bilakatzeko delako uste dut.

→ Edurne Elizondo



## Nafar Kronika

Pello Goñi

### Santa Ana

**i**ruñeko Santa Ana plazako hondakinetan katuak besterik ez dira agertu. Ez da ondare historikorik azaldu, ez eta inongo altxorrik ere. Katuak besterik ez. Katuak eta panpina hondaturen bat, paisajeari ukitu surrealista eta misteriotsua ematen diona. Bitxia da panpinena, aldi berean haurren inozotasuna eta helduen gaitakeria irudiztatzen ahal baitituzte, bederen, mendebaldeko literatura modernoan.

Santa Ana plaza bizirik izandu zen oso urruti ez dagoen garai batean, eta Iruñeko txokorik jatorrenetako bat izatera allegatu zen, bertan txosnak paratzen zirelarik. Gero hil zen, Iruñeko hainbat plaza bezalaxe —batzuk, egia esan, hilik jaiotzen dira hiri desegin honetan—, eta gaitzikilez bete ez zedin itxi egin zuten Pellejeria Txokotik nahiz Jarauta karrikatik. Niri oso toki egokia iruditzen zitzaidan plaza hura txoko xarmangarria egiteko: kafetxe pare bat paratu, beren terrazekin, eta halako giro bohemioa sor liteke, Europako hirietako alde historikoei dagokien bezalaxe. Hiriko marketinak horixe eskatzen du eta.

Iruñea ez da sekulan hiri bohemioa izan eta, agian, horregatik ez dago Bartzelonako Pi bezalako plazarik. Aukerak, ordea, badira. Santa Ana plaza aipatu dut, azken aldi honetan albiste izan delakoz, baina hor dago San Jose plaza ere, katedralaren aldamenean. Hantxe ere zerbait egin liteke izpiritu bohemioek hiri desegin honetan babesleku izan dezaten.

## gure aukerak

### KONTZERTUAK

- **Elizondo:** Gaur K-Ahba taldeak kontzertua eskainiko du Casino ostatuan, 22:30etan.
- **Sartaguda:** Asteartean Koma taldea Jamaika aretoan ariko da.
- **Iruñe:** Gaur Benito Lertxundi ariko da pilotalekuan 21:00etan.

### BERTSOLARIAK

- **Etxalar:** Bihar bertso afaria izanen da, Xabier Silveira, Iñigo Olaetxea, Eneritz Zabaleta, Amets Arzallus, Sus-trai Kolina, Miren Artetxea eta Xumai Murua bertsolariekin.
- **Oitz:** Bihar bertso afaria eginen da, Sebastian Lizaso, Iñaki Murua eta Millan Telleriarenekin.
- **Atharratze:** Igandean, 16:30etan, Etxahun Iruriren urtemuga dela-eta, Sus-trai Kolina, Miren Artetxe, Xanpun, Ernest Alkhat eta ikastolako haurrak ariko dira.

### DANTZALDIK

- **Orbaitzeta:** Igandean, 12:30etan, Harizti taldea ariko da, herriko frontoian.

### ANTZERKIA

- **Zizur Nagusia:** Teatro Bajo la Arena taldeak Memorias de una vaca antzezlana estreinatuko du gaur 20:00etan, Kultur Etxean.
- **Etxauri:** Hilaren 7an, asteartearekin, Gus Marionetas taldeak *El traje nuevo del emperador* txotxongilo lana eskainiko du, 19:30etan.
- **Iruñea:** Abenduaren 8an, 20:00etan, Producciones Micomicon taldeak La ciudad sitiada antzezlana taularatuko du, Nafarroako Antzerki Eskolan.

### ERAKUSKETAK

- **Burlata:** Sebastiao Salgadoren Terra argazki erakusketa ikusgai dago udaletxeko kultur aretoan, abenduaren 8a arte.
- **Atarrabia:** *Hondarribia: udako tokia!* Jose Maria Ballestaren argazki erakusketa paratu dute Kultur Etxean, abenduaren 17a arte. Astelehentik ostiralera dago zabalik, 17:00etatik 21:00etara.
- **Elizondo:** Fernando Gorostidiren margolanak ikusgai dade Monseñor Berekoetxea 2ko lokalean, urtarrilaren 6a arte. Erakusketa lanegunetan 18:30etatik 21:00etara bisita daiteke, eta bestaegunetan, 12:00etatik 14:00eta-

ra eta 18:30etatik 21:00etara.

### IKASTAROAK

- **Iruñea:** Abenduaren 7a arte eman daiteke izena 14 eta 30 urte bitartekoentzako Gazte-riaren Etxeko mintegietan: kutxatilagintza, elastikoen gaineko margogintza, birziklaturiko materialaz eginko Eguberrietako apaingarriak (euskaraz), ikasten ikastekoa, gaztaroaren osasunaren ingurukoa, dantza eta energia, gaurko dantza, makilajea eta sendabide naturala.

### LEHIAKETAK

- **Iruñea:** 2000. urteko urtarrila-

ren 31 arte aurkez daitezke Sex Haizegoak antolatzen dituen Narrazio Labur Erotikoen V. Lehiaketarako eta Pintura Erotikoen III. Lehiaketarako lanak.


### HITZALDIK

- **Iruñe:** Asteartean Joxe Iriarte 'Bikilak' borrokaren gorrian bere liburua aurkeztuko du Kultur Etxean 20:00etan.

### BESTELAKOAK

- **Iruñea:** 2000. urteko ekaina arte, Argilan lan informaziorako gazte bulegoa irekirik dago asteartero, 10:00etatik 12:00etara eta 19:00etatik 21:00etara (Nabarrerria, 15-1. eskuina).

## 'Zaindaria'eskultura ikusgai



• KRISTINA BERASAIN

Lizarran eskultura berri bat ipini dute. Lerro zuzen-zuzenak eta zorrotz-zorrotzak ditu, Lizarrerriko kiroldegiaren lerroen antzera. Azken horren marraz horizontalak dira, eta eskulturarenak, berriz, bertikalak. Kontrastea nabaria da. Artelana Alfonso Askunze artistarena da, eta Lizarrako I. Eskultura Bienalean sari-tu zuten, bertze 44 eskulturaren artean. Joan den martxoan jakinarazi zuten bienalaren irabazlearen izena, eta joan den astean paratu zuten artelana Lizarrako kiroldegiaren aurrealdean. 'Zaindaria' du izena, eta, Alfonso Askunzere esanetan, «zaindaria aktiboa eta gerlari pasiboa izan nahi du artelanak sinbolikoki». Eskultura Bienalaren xedeetako bat da hiriko zenbait txokotan eskulturak blitzea, hiria museo zabal bihurtzeraino.